



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSARAKO OHARRA
2017/01/23

Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzak bisitariz bete ziran 2016an

2016an Bizkaiak jaso ebazan bisitari guztien %10 baino gehiago (1.387.581 bisitari, joan dan asteen Foru Aldundiak kaleratu dituan datuak kontuan izanda) modu batean edo bestean Batzar Nagusien egoitzetakoren batera (Gernika, Abellaneda eta Gerediaga) joan zirala esan daiteke. Gernikako Batzarretxeak, Bizkaiko Batzarren ondare enblemeak, eta Gernikako Arbola dagon lekuak, begiradetako asko batu ebazan. Igaz 140.510 pertsonak bisitatu eben, eta horreetatik %78 Euskal Herritik kanpotik etorritakoak izan ziran. Kopuru horri, Abellanedako Batzarretxera eta Enkarterrietako Museora heldu ziran 13.023 pertsonak gehitu behar jakez, %6,5 gehiago.

Igazko bisitarien kopuruak kontuan izanda, argi eta garbi ikusten da Gernikako Batzarretxeak bisitariak erakarteko daukan ahalmen handia. Bizkaiko Batzarretako sarreren kopurua azpimarragarria izan zan udako hilebeteetan batez be, eta bisitari gehien jaso ebazan hilebetea abuztua izan zan, 27.707 bisitarigaz.

Gernikako Arbolak atsedean hartzen dauen lekua urteko egun guztietan dago zabalik, doban, osoko bilkurak egiten diran egunetan izan ezik. Egunean 385 bisita jaso ditu batez-beste. Eguneko batez-beste hori 900 pertsonakoa izan zan abuztuan.

Gure lurraldeko Batzarren enblemea ezagutzera gerturatu ziran pertsonen %82 Euskal Herritik kanpotik etorritakoak izan ziran. Horreetatik guztietatik, erdia baino gehiago –71.172– beste Autonomia Erkidego batzuetatik hurbildu ziran Gernikara, Kataluniatik (16.683), Madrildik (13.044) eta Andaluziatik (10.432) batez be.

Atzerriko bisitariak jagokenez, Europako herrialde nagusiak dira, orain arte moduan, bisitari gehienak datozen lekuak. Dana dala, lehen aldiz, Estatu Batuak lehenengo lekuetan jarri dira. Gernikara etorritako hamar pertsonetatik ia bi atzerititik etorri ziran. Bisitariak etorri ziran herrialdeen artean Frantzia (10.810), Estatu Batuak (4.358) eta Alemania (4.106) azpimarratu behar dira.

TURISTA GEHIEN ERAKARTEN DAUEN BIZKAIKO HIRUGARREN LEKUA

Datu horreek ikusita, Gernikako Batzarretxea bisitari gehien jasoten dauen Bizkaiko hirugarren gune historiko-kultural moduan finkatu da, 1.169.404 pertsona jaso ebazan Guggenheim Museoaren eta 269.978 bisita izan ebazan Bilboko Arte Eder Museoaren ostean.

ABELLANEDAKO BATZARRETXEAK – ENKARTERRIETAKO MUSEOA

2016an, Enkarterrietako Museoak, erakusketa egonkor zabalagaz batera, Enkarterrietako kulturaren eta historiaren inguruko ikerketa behar handiaren ondorioz antolatutako aldi baterako beste erakusketa batzuk uztartzen jarraitu dau. Aldi berean, aurrera jarraitu da ikasle taldeakaz gauzatzen diran ohiko jarduerakaz, eta horrek etenbako hazkundera eragin dau azken urteetan Sopuertan dagon Batzar Nagusietako egoitzan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

2016an, Abellanedako zentroak 13.023 pertsonaren bisita jaso eban eta horreetatik 9.333 taldean etorri ziran, gehienak gure lurraldeko ikasleak. Enkarterrietako Museoak 2015ean baino 800 pertsona gehiago jaso ebazan, hau da, %6,5eko hazkundea izan eban.

GEREDIAGA, ZABALIK GARAGARRILETIK

Gernikako eta Abellanedako kopuruei Gerediagako Batzarretxeak lortutakoak gehitu behar jakez. Bere harrien artean Durangaldeko eta Bizkaiko historiaren parte garrantzitsua ezkutetan dauen foru zelaia jende guztiarentzat behin betiko zabaltzea erabagi eben Bizkaiko Batzar Nagusiek garagarrilaren 22an. Egun horretatik aurrera, Batzarretako hirugarren egoitza urteko egun guztietan dago zabalik, Bizkaiko Batzar Nagusien eta Abadiñoko Udalaren arteko akordioari esker. Akordioak Gerediaga Elkartearen aholkularitzea izan eban.

Gerediagak, erreferentzia historiko eta kulturaleko puntu horren kultura eta arte balioaren inguruko informazio praktikoa jasoten dauen seinale sistema dauka. Informazio panel batzuek, antxina eskualdeko ordezkariak alkartzen ziran leku horren garrantzia, bilakaerea eta historia kontetan dabe hiru hizkuntzatan (euskeraz, gaztelaniaz eta ingelesez),.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
23/01/2017

Las sedes de Juntas Generales de Bizkaia se llenaron de visitantes en 2016

Más de un 10% de los visitantes totales que recibió Bizkaia en 2016 (1.387.581, según datos hechos públicos la semana pasada por la Diputación), se puede decir que recalaron en alguna de las sedes parlamentarias de las Juntas Generales (Gernika, Abellaneda y Gerediaga). La Casa de Juntas de Gernika, emblema patrimonial del Parlamento de Bizkaia y lugar donde descansa el Árbol de Gernika, concentró buena parte de las miradas foráneas. Fue visitada el año pasado por 140.510 personas, de las que el 78% provino de fuera de Euskal Herria. A este cómputo hay que sumar las 13.023 personas que llegaron a la Casa de Juntas de Abellaneda y Museo de Las Encartaciones, un 6,5% más.

Las estadísticas de visitantes del año pasado han confirmado un año más el enorme poder de atracción que posee la Casa de Juntas de Gernika. El cómputo de entradas en la sede parlamentaria vizcaína destacó especialmente durante los meses estivales, alcanzando su pico más alto en agosto, con 27.707 visitantes.

El lugar de descanso del Árbol de Gernika, abierto todos los días del año de forma gratuita, excepto los días de pleno, ha recibido una media de 385 visitas diarias. Esta media alcanzó casi las 900 durante cada jornada de agosto.

El 82% de las personas que se acercaron a conocer el emblema parlamentario del territorio provino de fuera de Euskal Herria. Del total, más de la mitad -71.172- se acercó hasta Gernika desde otras Comunidades Autónomas, especialmente de Cataluña (16.683), Madrid (13.044) y Andalucía (10.432).

En cuanto a los visitantes extranjeros, los grandes países europeos continúan siendo los principales emisores, aunque por primera vez irrumpe en nuestro particular podio Estados Unidos. Casi dos de cada diez personas que llegaron a la villa foral eran extranjeras, destacando Francia (10.810), Estados Unidos (4.358) y Alemania (4.106).

TERCERA ATRACCIÓN TURÍSTICA DE BIZKAIA

Con estos datos, la Casa de Juntas de Gernika se confirma como el tercer centro histórico-cultural más visitado de Bizkaia por detrás del Museo Guggenheim, que recibió a 1.169.404 personas, y del museo Bellas Artes de Bilbao, con sus 269.978 asistentes.

CASA DE JUNTAS DE ABELLANEDA - MUSEO LAS ENCARTACIONES

Durante el año 2016, otro de los emblemas de las Juntas Generales, el Museo de Las Encartaciones ha seguido combinando su amplia exposición permanente con otras muestras temporales fruto de una intensa labor de investigación sobre la cultura y la historia de Las Encartaciones. Al mismo tiempo, se han mantenido la actividades habituales con grupos de escolares que han impulsado un crecimiento constante de visitas durante los últimos años en la sede parlamentaria de Enkarterri, ubicada en Sopuerta.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Durante el 2016, el centro de Abellaneda contó con la visita de 13.023 personas de los que 9.333 vinieron en grupo, la gran mayoría escolares del territorio. El Museo de Las Encartaciones superó las cifra de visitantes del 2015 en 800 personas, lo que supuso un crecimiento del 6,5%.

GEREDIAGA, ABIERTA DESDE JULIO

A las cifras de Gernika y Abellaneda habría que sumar las obtenidas por la Casa de Juntas de Gerediaga. Las Juntas Generales de Bizkaia decidieron abrir definitivamente al público el 22 de julio la campa foral que esconde entre sus piedras una buena parte de la historia de Durangaldea y Bizkaia. Desde ese día, la tercera sede parlamentaria abre todos los días del año gracias a un acuerdo con el ayuntamiento de Abadiño, que contó con el asesoramiento de la asociación Gerediaga Elkartea.

Gerediaga cuenta desde entonces con un sistema de señalización que incluye información práctica sobre el valor cultural y artístico de este punto de referencia histórico y cultural. Un conjunto de paneles informativos relatan en tres idiomas (euskera, castellano e inglés) , la relevancia, evolución e historia del lugar, donde antiguamente se reunían los representantes de la comarca.